

# SEXU ANIZTASUNA



Jean Michel Etchecolonea

## EGOERA

Sexualitatea pertsonen izaerari eta bizitza berari loturiko zerbait da, genero banaketa eraikitako klasifikazioa den moduan. Jendarteratze sexistak eragin zuzena dauka sexualitatea, generoa eta gorputza eraikitzeke garaian; araututakotik irteteak gainera fobiak, jazarpenak eta bazterkeriak eragiten ditu gaurko egunean.

Urratsak eman badira ere bereziki bisibilizazioan eta esparruak irabazteko unean, eredu heterosexual eta

gorputz normatiboetatik irteten diren pertsonen ez zaizkie eskubide horiek guztiak bermatzen; horregatik hezkuntza, osasuna, lan mundua, administrazio publikoa eta komunikabideetan bereziki, baliabide tekniko, juridiko eta ekonomikoak aktibatu behar dira herritartasun anitzak parekidetasunean garatu ahal izateko, edozein delarik ere afektibitatea, sexualitatea, generoa eta gorputza garatzeko hautua.

## HELBURUAK

Azken urteotan eta elkarte zein kolektibo lesbiana, gay, bisexual eta transexualek egindako lanari esker, lege mailako urratsak eman dira. Nolanahi ere urratsak ematen jarraitzen dugu aniztasun eta askatasun sexuala jendartearen esparru orotan gauzatu izan dadin, eta paradigma sexuala (heteroaraua) aldatzeko.

## NEURRIAK

1

### ANIZTASUN ETA ASKATASUN SEXUALERAKO LEGE INTEGRALA SORTU

honen baitan heteroarautik eta genero banaketa tradizionaletik ateratzen diren pertsonen eskubide zibil eta politikoak babestuak izan daitezzen, gainerako herritarren maila berean.

Gorroto delituei aurre egiteko Euskal Behatokia.

Izaeraren erregistro aldaketarako eskatzen diren beharkizunak aldatzeko neurri normatiboak aktibatu.

Lesbiana-bikoteen adin txikikoak erregistratzeko gaur egun eskatzen diren beharkizunak ezabatzeko neurriak aztertu.

Sexua gizonezkoa ala emakumezkoa den zalantzan jartzen duten izenak jartzeko debekua bertan behera uzteko neurriak aztertu.

Lagundutako ugalketarako lege propioa sortu, emakume ezkongabeen eta sexu bereko bikoteen aukera lagundutako ugalketarako teknikak erabili ahal izateko, norberaren egoera zibila eta joera sexuala kontuan hartua izan gabe.

Eztabaida sustatu, osasun zerbitzu publikoko Genero Unitateetan gaur egun ezarrita dauden jarduteko irizpideak aldarazteko.

Pertsona transexualen ikuspegi patologizatzaile eta heterosexista gainditzeko neurriak ezarri.

Herritarrekin lotura duten administrazio publikoko esparru guztiei zuzendutako neurriak jasoko dira, bereziki Osakidetza, Hezkuntza, zerbitzu sozialak, enplegua eta komunikabideetan.

Sexu langileen osasun, lan, legeri mailako babes bermatu eta haiei zein beraien aldarriei ahotsa eman.



## GLBTI PERTSONA ETA KOLEKTIBOEN ARITZEKO AZPI-ZUZENDARITZA SORTU

Eusko Jaurlaritzako organo eta justizia administrazioen arteko elkarlana sustatzeko GLBTI kolektiboetako pertsonentzat.

Epaitegi, fiskaltza eta poliziari zuzendutako trebakuntza eta sentsibilizazioa lantzeko programak abiatu.

GLBTI eta sexu langileekin aritzerakoan, ertzaintza eta lekuko polizien interbentzioak arautzeko protokoloak aktibatu.

Lan sailarekin batera, GLBTI kolektiboetako pertsonen parekidetasunean sarbidea izan dezaten lan-esparrurako protokoloa indarrean jarri.

Transexualitatearen despatologizazioa eman dadin neurriak aktibatu Osakidetzan.



## ANIZTASUN ETA ASKATASUN SEXUALAREN BEHATOKIA SORTU

Euskal Herriko kolektibo transexual, gay, lesbiana eta bisexualekin harremana eta elkarlana sustatzeko Erkidego mailako kontseilua sortu.

Bazterkeria egoeren gaineko azterketa eta ikerketak burutu, aniztasunerako neurriak aktibatuz.

Genero arteko indarkeria, aniztasun arrazoiengatik jazarpena eta lan merkaturatze duinerako arazoak gainditzeko protokoloak aktibatu.



## ANIZTASUNEAN ARITUKO DEN GOBERNABILITATEA ERAIKI

Euskal administrazioiko kargu publikoak trebatu eta informatu, aurreiritzirik gabeko jarrerak garatu daitezten. Zigorrek ezartzeko neurriak abiatu kargu publikoan egonda matxismoa, transfobia, lesbofobia, homofobia eta sexofobia sustatzen dituztenei.

Hezkuntzako curriculumean afektibitate, sexualitate, genero eta gorputz aniztasunaren lanketa txertatu.

Jazarpenak oro ekidin eta gerta ez dadin adinez txikikoen artean, sentsibilizazio eta prebentziorako protokoloa abian jarri.